

EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA, GARAPENA ETA FUNTZIOA EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN TESTUINGURUAN

Tesiaren egilea: Asier Larrinaga Larrazabal

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

Tesi-zuzendaria: Igone Zabala Unzalu, Agurtzane Elordui Urkiza

Tesiaren laburpena:

Tesian, Euskal Telebistaren 1982tik 2018ra arteko historiaren azterketa egin da, euskararen normalizazioaren ikuspegitik begiratuta. Euskal Telebista 1982an eratu zen, euskal gizarteak irrikatzen zuen burujabetza politiko, ekonomiko eta kulturala neurri batean erdiesteko aukera gertatu zen testuinguru batean. Proiektua Eusko Jaurlaritzak eraman zuen aurrera, Gernikako Estatutuan jasota zeuden eskumenez baliatuta. Hedabide berriak hiru eginkizun bete behar zituen komunitatearen zerbitzuan: herritarrei informaziorako eta parte-hartze politikorako baliabide bat eskaintzea, hezkuntza-sistema osatzea, eta euskara eta euskal kultura sustatzea eta zabaltzea.

ETBren 35 urteko ibilbidean, faktore bi izan dira euskara sustatzeko eta zabaltzeko betekizun horren baldintzatzaile nagusiak. Lehena, euskararen estandarizazioa. ETBk euskara batua hartu zuen bere hizkuntza-eredutzat lehen unetik, baina euskararen estandarizazioa hasierako urratsetan zegoen eta, gainera, literatur eredu bat ekoizteko planteatua zen. Ondorioz, ETBk hainbat erronkari egin behar izan zien aurre, besteak beste, euskara telebistako komunikaziorako lantzea, euskara batua ahozko erabilerara egokitzea, eta komunikatzaileak euskara batu berri horretan aritzeko prestatzea.

Bigarren faktorea teknologia digitalaren agerpena izan da. XXI. mendearen atarian, teknologia horrek mundu globalizatua ekarri du, alegia, lurbira osoa konektatuta egotea komunikabideen bitartez eta komunikabideotan nagusi den ingelesaren bitartez. Mundu globalizatu horretan, hedabideei —hizkuntza gutxituko hedabideei batez ere— erronka zailak planteatu zaizkie, hala nola plataforma, kanal eta eragile berrien lehia; hiztunen eta, beraz, komunikatzaileen hizkuntza-jarrera berriak, estandarraren erabilerara desantolatu egin dutenak, eta, hirugarrenik, hedabideak kontsumitzeko modu berriak, komunitateari zerbitzua ematearen ideiarekin zerikusirik ez dutenak. Erronka horien guztien aurrean ETBk zelan jokatu eta zelan erantzun duen aztertzea izan da tesiaren ardatza.

Azterketa horri ekin aurretik, lehendabizi, literatura soziolinguistikoaren berrikusketa egin da, hedabideek hizkuntza gutxituen normalizazioan bete dezaketen rolari buruzko ikerketen eta eredu teorikoen berri izateko. Bigarrenik, euskararen normalizazioaren historia osoari gainbegiratu eman zaio: aldiak, normalizazio-eragileak, politikak eta ekimenak. Eta berrikuspen horretan, arreta berezia ipini da hedabideekin loturiko politika eta ekimenetan, ETBren sorrera bere testuinguruan jartzeko helburuz.

Azterketa guztia eginda, tesi honen ondorio nagusia da Euskal Telebistak egin-kizun oso garrantzitsuak bete dituela eta oraindino ere betetzen dituela euskararen normalizazioan alderdi guztietan: estatusen, corpusean eta jabekuntzan.